



ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

ahm@altza.net

Lau-Haizeta, 21-3. ezk. 20017 ALTZA

Lege gordailua: SS103/97

ESTIBAUS

www.altza.net

"aiuntados en el campo de Estibaús según que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar..." (Altza, 1390)

NUMERO 21 / 2001eko URRIA



"Paisaia Horizontalak"

TXOKOLARTE

Altzan sortu eta biltzen garen Txokolarte Grafika Taldeko kideok zabalik gaude grafikaren inguruan egiten diren edozein proposamenei atea zabaltzeko. Ohiko grafikaz gain esperimentazioa ere lantzen dugu tailerrean. Esperimentazio lan horien emaitza nagusietako bat da "Paisaia Horizontalak" izeneko ekintza.

"Paisaia Horizontalak" grafikan ezohikoa den teknika batean oinarritzen dira. Presioa egiteko torkulua, kaleko zanpagailu (apisonadora) batez aldatzen dugu eta kobre edo egurrezko trokela kaleko lur-zoruarengatik.

Altzako Harria Parkean egin genituen gure kontura estanzazio teknika honen lehen frogak ia zein arazo eman zitzakeen jakiteko.

Beste hainbat herri eta sari pasa ondoren, berriz ere Altzako Historia Mintegiaren eskutik bertara itzuli gara gogoz.

Lurzorua da gure irudiak eraikitzeko oinarria, berau tintatu eta presio bidez paperean jasotzen dugu azterna. Egunero zapaltzen dugun Altzako lur esanguratsu hori dakarkizuegu eskuartera.



El grupo de gráfica altzatarra Txokolarte recorre las calles de las ciudades (Orereta, Gorazde, Madrid...) grabando a base de tinta, papel y apisonadora trozos de suelo sobre los que la gente camina habitualmente sin apenas fijarse en él. Con motivo de la publicación del número 6 de «Altza, Hautsa Kenduz» hemos acudido a Txokolarte para obsequiar a los colaboradores de los seis números con un pequeño trozo de acera de nuestro suelo grabado en el parque Harria, en reconocimiento a su desinteresada colaboración.




" Altza, Hautsa Kenduz - 1 " PDF formatuan Interneten

Orain dela 13 urte "Altza, hautsa kenduz" bildumaren lehenengo zenbakia argitaratu genuen. Garai hartan kaleratu ziren 1000 ale azkar agortu ziren eta ondoren askotan zenbaki horren eskaera jaso dugu. Zenbait momentutan berriro argitaratzea pentsatu dugu, baina aukerarik ez dugu izan. Gaur egun, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) ematen dituzten aukeraren esker, zenbaki horretan azaltzen ziren artikulak, argazkiak, dokumentuak... Interneten bidez eskuratzeko aukera eman dugu.

Norbait interesatuta badago www.altza.net webgunean aurkituko ditugu aipatutako artikulak, argazkiak, dokumentuak... PDF formatuan.

Formatu honetan dauden dokumentuak irakurtzeko Acrobat Reader programa behar da eta helbide



honetan www.acrobat.es dohainik eskura daiteke.

Próximamente: nuevo libro sobre el patrimonio altzatarra

El próximo mes de diciembre se procederá a la publicación de un nuevo número de la colección Artiga, fruto de la investigación que durante el último año ha llevado a cabo Beatriz Herreras Moratinos como ganadora de la V Beca de Investigación sobre Altza.

Bajo el título "Altza: Historia y Patrimonio", la autora hace un exhaustivo repaso a los elementos constructivos más notables existentes en nuestra comunidad.

En él encontraremos un análisis técnico minucioso de numerosas edificaciones altzataras, edificaciones que conviven entre nosotros y que hasta hoy no han sido suficientemente valoradas. Por ello, este trabajo va a servir en adelante de guía y catálogo fundamental para el estudio y divulgación de los elementos patrimoniales altzataras. Nuestra labor de recuperación de la memoria histórica y de intentar reforzar el sentir identitario de la comunidad queda plenamente ratificada con estudios como el presente.

Caseríos, fábricas, agrupaciones de casas... La descripción de todo ello tiene cabida en este sugerente recorrido a lo largo del tiempo y del espacio de Altza. En palabras de la autora, "aquí el patrimonio se convertirá en las huellas físicas donde reconocer cada época histórica".

La temática estudiada y el brillante resultado final de esta investigación nos ha animado a publicar una edición "especial": en color y acompañado de numerosas fotografías, planos y otros elementos descriptivos que contribuyen a hacer más didáctico y atractivo el ya de por sí interesante trabajo.



Argazki honetan garai bateko Herrera daukagu. Ez dakigu ze urtekoa den, hogeigarren hamarkadakoa gutxi gora behera. Bertan mutilen dantza talde bat ikus dezakegu Herrerako San Luis plazan.

Honen ezkerrean Errerriya baserria dago eta goian Kaxeterua, trenbidearen pasonibelaren ondoan (zubi azpiko errepide zatia egin gabe zegoen). Ermita bidearen bi alboetan, Tantarrene etxea eskubian eta Zoriontegi ezkerrean. (Emaila: Isabel Landa)

Altzako Gaztetxea

Dagoeneko bi urte pasa dira Altzako gazteak Gaztetxe baten alde biltzen hasi ginenetik. 1999ko udazkenean hasi ginen elkartzen, kaskoko elizaren inguruan, eta koadrila ezberdinetako jendea biltzen ginen. Danon artean, gazteok gure kontura egin nahi genituen jarduera ezberdinak burutzeko gune baten beharrean ginela ondorioztatu genuen, eta egoera hori aldatzeko gaitasuna eta beharra bagenuenez, gaztenontzako gune ireki baten alde lanean hasi ginen.

Honela, 1999ko abenduan Herrerako Rutilita fabrika zaharrean sartzea erabaki genuen, 15 urte zeraman hutsik eta aproposa iruditu zitzaigun okupatzea eta gure beharretarako erabiltzea. Bertan, inoiz baino jende gehiago bildu ginen konponketa eta garbiketa lanetan, eta Larratxo, Altza eta Herrerako bizilagunen elkarteen babesa ere bagenuen. Gauzak horrela, Rutilita Altzako gazteon elkartze gune bat bihurtu zen, non gainera, Zurrumbilo, Gazte Bonobusaren aldeko plataforma, antzerki taldea, etab. biltzen ziren. 6 hilabete beranduago (maiatza) etorri ziren arazoak, proiektu berri bat egin nahi omen zuten lehen bai lehen guk geureganatu berri genuen fabrika zahar honen lekuan eta zipayoak etorri ziren jabearen aginduz gu handik botatzera. Gainera ez genuen negoziatzeko inolako aukerarik izan, ez jabearekin ezta Donostiako alkatearekin ere, nor Altzako gazteon arazoan asetzeko prest egon beharko luke.

Gertakari honen ondoren, eta inoren laguntzarik jaso gabe, berriro ere geure kabuz beste gune bat bilatzen hasi ginen, okupazioaren bidez, gazteok genuen arazoa konpontzeko. 3 egun beranduago Herreran 20 urtez hutsik egondako etxe bat okupatu genuen, Jose Elosegi kaleko 134 zenbakia. Guztia goitik behera garbitu ondoren kanpotik

urdinez margotu genuen eta horregatik "etxe urdina" izenez ezaguna izan zen. Rutilitan eramandako dinamika berdina eraman genuen, baina etxe honetan hobeto moldatu ginen. Beheko partea taberna bezala moldatu genuen eta goian hainbat logela konpondu genituen jarduera ezberdinak burutzeko, hala nola, antzerkigintza, Zurrumbiloren gela, egongela, liburutegia, materiala gordetzeko... Herrerako festetan izan zen inauguratua eta jaiei giroa emateko hainbat ekintza egin ziren, horien artean, gazte kostillada, haur jokoak, argazki erakusketa, pelikula baten proiektzioa, kontzertuak... etab.

Baina urrian ere hemendikan ospa egin behar izan genuen, oraindikan etxebizitzak zutik jarraitzen duen arren, bota egingo zutela esan zuten, berritzeko asmoz.

Desalojo honen ondoren denbora dexente egon ginen kale gorrian 2001eko maiatzean Euskotrenen beste saiakera bat egin arte. Tarte honetan Harria parkean akanpada bat antolatu

genuen. Kalejirak egin genituen eta kontzertu bat ere bai Altza Kaskon. Euskotrenen aste bete iraun genuen, berrero ere etxe huts bati bizia eman nahian, jabeengatik engainatuak eta zipayoengatik kanporatuak izan ginen.

Kanpaina bat egiten hasi ginen Euskotrenen aurka, lokal horri sekula ez diolako jaramonik egin eta sekula ez diolako egingo. Ekainaren 8an protesta bat burutu genuen Herrerako Topo geltokian ximaurra, xiringak eta arraultzak botaz bertara nahiago dutelako hori guztia beraien instalazio hutsetan gazte antolatuak baino.

Irailak 15erako Gaztetxeen aldeko Manifestazio nazionalerako, Bilbon autobusa atera behar genuen Antiguakoekin batera, baina bertan behera utzi zen manifa.

Ikusten duzuen orain kale gorrian gaude, baina laster proiektu berri bati ekingo diogulakoan gaude, eta urte askotarako.



Manuel Zapirain gogoan



Aurreko zenbakian Manuel Zapirain-en heriotzaren berri eman genuen. Ustekabean hartu gintuen, oso argi eta bizi ikusi baikenuen Manuel hil aurreko astean. Utzi digun gogorapenarekin batera bere koadernoan idatzitako esperientziak eta burutazioak utzi dizkigu. Horietako gutxi batzuk Hautsa Kenduz liburuan bilduak daude, bueltatuko ez den garai bateko testigantza. Eta orain eskaintzen dizueguna beste bat da, uda honetan bertan idatzitakoak. Aralarren, artzain-txabolan igarotako egun horietan idatzitako bertsoak. Ezagutzen ditugun azkenak dira eta Estibausen argitaratzeko eman zizkigun.

1

Aralarreko artzai
Txabola xar ontan
Zortzietan jaiki naiz
Gaba pasaz lotan
Irratiz ari ziran
Erri konponketan
Berritu zait nerekin
Neukana askotan

2

Itxuraz ari ziran
Denak beren alde
Batzuak arrazoiz ta
Bat batere gabe
Batere gabea zan
Nagusi ta jabe
Nere pentsaeratan
Ola da au ere

3

Bakoitzak eman zuten
Hamaika iritzi
Erri au konpontzia
Nor zuten lenbizi
Izt goxoz egin zuten
Berera irrintzi
Sustrai garbietara
Etziran iritxi

4

Bi erri gaude emen
Auxen da garbia
Bat bertakua da ta
Bestia berria
Bertakua nai dute
Mendean jarria
Ori da sustraia ta
Emengo egia

5

Danak berdin sortuak
Norbaite mundura
Geroztik erri onek
Artu du egurra
Egia esateko
Daukagu beldurra
Egia gezurtu da
Egi da gezurra

6

Egia esatia
Bada pekatua
Au da nere egia
Ta pentsamentua
Destinuak sor zala
Bere destinua
Alperrikan ari naiz
Xiltzera nua

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker
gracias a ti

gizarte ekintza
obra social